



BASERRITARAK eta ARTZAINAK Hernanin

LUIX MARI ZALDUA ETXABE

DOLORES SANTA CRUZ ETA JUAN MARÍA ARTOLARI

*"Artzain oni ez nondic eta andic alabearrac
ecarri cion burura, azalandare erdi igartu oec
chabola inguruan landatzea, eta ifini ere
cituen lurriric oberena cerizquion toquian."*
J.I. Iztueta, 1847.

Artikulu honen asmoa lur-langintzak
Hernanin izandako garapena ulertzen
lagun dezaketen zenbait datu biltzea da.
Pentsa daitekeenez, azaleko hurbilketa
bat egingo da gaira, baldintzapenak-
baldintzapen, beste ezertarako tokirik ez
baitago.

Beste ezertan hasi aurretik, artikulua
gaia zehazteko argibide bat, alegia, baserriaz
aritzekoan, artzantza ez dela kanpoan gelditzen.
Bi arlo horien arteko bereizkuntza Hernaniko
alderdi batzutan gardenak bada ere, beste paraje
batzutan, oster, Urumeaerreka inguruko
baserrietan konparazio batera¹, baserriko
iharduera lur-langintzan eta artzantzan oinarritu
denez, bi lantegien arteko banaketa ezin daiteke
hola-hola egin. Hain zuzen ere, horixe izango da
artikulu honen ardatza, hots, Urumeaerreka

inguruko baserrien bilakaeran lur-langintzaren eta
artzantzaren artean egondako harremana. Gai
hori, Hernaniri dagokionez, eta oro har ere bai, ez
da gehiegi ikertu oraindano, saroeak, konparazio
batera, artzantzaren ikuspegitik edota
burdinolekin izan duten harremanari begira
aztertu baitira batez ere².

Neolitikoa izenez ezagutzen den aroaren
eta lur-langintzaren hastapenak bateratsu gertatu
ziratekeen. Mendebaldean, Neolitikoaren sarrera,
Kristo aurreko seigarren eta bosgarren milurteen
arte gertatu zela onartzen da.


Euskal Herrira etorri gero, data hori, pare
bat milurte atzeratzen da, Kristo aurreko laugarren
eta hirugarren milurteetarako hain zuzen ere.
Atzerapen horretan, Euskal Herri atlantiarrak zitu
edo zerealak ereiteko eskainitako baldintza txarrek
zerikusirik izan dukete, ez baita ahaztu behar
Neolitizazioaren oinarrietariko bat horixe izan zela³.

Urumeaerrekan, zehatz-mehatz, gizakiak
lurra lantzeari noiz ekin zion ez da ezagutzen.
Hasera batean, Euskal Herri atlantiarrarentzat
emandako data ontzat eman badaiteke ere,
baieztape hau hipotesi huts bat besterik ez da,

AKOLA-ALKATXURAIN
MENDIALDEAREN
IKUSPEGIA.



ALKATXURAIN
SAROEAREN
PLANOA.



oraingoz ez baitago kronologia hori egiazta dezakeen informaziorik.

Idatzizko dokumentazioarekin Urumeaerrekako lur-langintzaren historiaren abiapuntua izan daitekeena iristen da. 1178 aldera, Nafarroako Antso Jakituna erregeak, Gartzia Erramirezek Iruñeko elizari egindako Urumea-n zeukan guztiaren donazioa berresten du. Sasi original batean jabetzak zehatz-mehatz izendatzen dira eta horri esker Urumea aldeko hamabost saroeen izenak jakin daitezke. Aipaturikoetatik gutxienez bederatz saroe osorik edo parte batean behintzat Hernanin zeuden⁴: Arainiuar, Lastaola, Ammunola, Anziz, Gierala, Muez, Izarrlegui, Apparren eta Eualibia .

Ricardo Izaguirre-k, historia eta toponimia uztartzen dituen artikulu interesgarri batean, donazioan izendatzen diren saroeen eta egungo baserrien arteko lotura aipatzen du⁵:



“... En general los seles adoptaban, naturalmente, para su designación la toponimia del lugar en que se hallaban emplazados, y como muchos de ellos se convirtieron posteriormente en caseríos, al desaparecer aquellos ante la expansión agrícola, conviene buscar su radicación en los nombres de los caseríos próximos o en topónimos de la zona.”

Jatorriz saroe zirenak, denbora pasa ahala, baserri bihurtzen joan ziren beraz. Bilakaera horren lekuko, gaur egun, oraindik, Urumeaerrekako lau baserrik tasun horri eusten diote, alegia, saroe izaera eta tankera daukate: AKOLA, ALKATXURAIN, IEROLA eta LARREGI.

Beste saroe batzuk, orde, baserri bihurtu ahala, jatorrizko izaera zein tankera galdu zuten. Saroe izandako baserri horietako batzuk: ETXOLABERRI, IZENEDER, LASTAOLA, LIZARREGI eta SARATSAIN.

Hernanin, saroeetako lurra lantzeari noiz ekin zitzaion ez dago batere argi, baina XV. menderako iharduera horretan hasiak zirela pentsatzeko arrazoirik badago, 1467 urteko dokumentu batean honakoa irakur baitaiteke⁶:

“... el dicho sel (de la ferreria de Urruçuno) fincando fuera del dicho exido, a dende por la loma arriva a una tierra labradia llamada de Amunolla ...”





Dokumentuan, Amunolla izeneko alorra saroe baten barruan zegoenik ez da espresuki aditzera ematen, baina, horrela ez balitz ere, toponimia eta geografia aintzakotzat hartuz gero, aipatutako lur landua ez legoke AMUNOLA izeneko bi saroeetatik urrunegi.

Lehen alorren sorrera aztertzerakoan Urumeaerrekako zenbait saroeetan transhumantzia gabeko artzantza egin izan dela ez da ahaztu behar, hau da, hainbat tokitan abeltzainak urte osoan egon izan direla etxoletan, eredu horrek, beste iharduera batzuetarako bidea, lur-langintza kasu, dezente errazten duelarik. Horrela bada, lurra lantzen, neurri oinarrizkoenean behinik behin, artzantza toki jakin batzuei finko itsastearekin batera ez ote ziren hasi pentsa daiteke.

Urumeaerrekaz landa ere bi iharduerek izandako ukipenaren adierazgarri, 1542ko Hiriko Ordenantzetan, Hernaniarren kezka nagusietariko bat artzantzaren eta lur-langintzaren arteko harremanak arautzea zela ikus daiteke⁷.

XVII. mendeko dokumentazioan Urumeaerreka aldeko baserrien aipamenik ez da aurkitu. Aitzitik, beste mota batzuko eraikuntzak (burdinolak, errota, dorretxeak, ...) maiz azaltzen dira izkribuetan.

1610 urtean egindako harresiz kanpoko etxeen zerrendan konparazio batera⁸, Urumeaerrekari erreparatuz gero, burdinola edo dorretxe ez diren bi eraikuntza bakarrik aipatzen dira, Bazterra (BAZTERROLA) eta Lassa (LATXA). Bi eraikin horiek izen bereko burdinolekin zerikusirik izan dezakete gainera. Ez dirudi, beraz, artean, Urumeaerrekako saroeetan zeuden eraikuntzak baserri bihurtu zirenik.

1773 urteko pleitu batean, ordea, honakoa irakur daiteke⁹:

"... por la mucha confusión de caserías, ferrerías, chozas de pastores y seles de particulares, que estan remezclados en estos montes ..."

Eta, aurreraxeago, hain esanguratsua den hau, berriz:

" ..., y porque todas las ferrerías referidas, son de la villa de Hernani o sus vezinos, como tambien las mas de las dichas



caseras y chozas que se hallan en dichos seles y exidos ..."

Aipamen horien arabera, beraz, XVIII. mendearen amaierarako zenbait saroetan zeuden eraikuntzak baserritzat zeuzkatela garbi legoke, beste batzuek, aitzitik, artean etxola edo borda izaten segitzen bazuten ere.

Iturri den pleituan bertan egiten den saroeen erabileraren deskribapenean ez da landutako lur eremurik aipatzen, beti ere basoak edo txarak zeudela esaten baita. Ez dirudi bada, egon, bertan, baserririk bazegoen arren, XVIII. mendean lur-langintza Urumeaerrekako saroeetan iharduera nagusia zenik, ez eta gutxiagorik ere. Horrek, halere, paisaiaren humanizazio handiago batez hitz egitea ez du eragozten, beste toki batzuetan ere, joera hori, XVIII. mendean zehar nabarmen indartu zela baitirudi¹⁰.

1843 urtean abeltzainek Hernaniko elizari ordaindu zioten zerga zerrendan, besteak beste, sasoi hartan, Urumeaerrekako partean, normalean berrogei-hirurogei burukoak ziren artaldeetan banaturik, 1.480 ardi baino gehiago zeudela biltzen da¹¹.

Saroe izandako baserriei dagozkien datuak hauek dira:

	Yuntas ¹²	Cabezas sueltas ¹³	Caballar	Obejas
Larragáin		1	2	50
Acola		3		
Iceneder	2			50
Alcachuráin (4) ¹⁴	5	5		60

XIX. mendearen erdialdean Gipuzkoa osoko baserri guztiak biltzen dituzten nomenklator edo izendegiak hasten dira. 1864 urtekoan konparazio batera¹⁵, Hernanin, Casa de labor izenburupean, saroe izandako baserri hauek aipatzen dira: Acola, Alcachurin, Echola-berri, Iceneder, Iguerola, Larragáin eta Lizarregui.

Dokumentu berean, Chozas de pastores motari dagokion atala begiratz gero, urte hartan, Hernanin, horrelako hamaika eraikuntza zeudela ikus daiteke. Beraz, bigarren atal honetan agertzen ez direnez, ordurako goiko zazpiak ez ziren etxola edo borda, artzantzaz gain, bestelako ihardueretatik ere bizi ziren familien, hots, baserritarren bizileku baitziren jadanik.

XX. mendean zehar, bizitza hiritarra garatzen joan ahala, Urumeaerrekako baserri asko hustutzen edo erortzen joan dira. Gaurko egunean, saroe izandakoen artetik erdiak baino ez dute segitzen baserri moduan, iharduera horren etorkizuna, oro har, Hernanin ere, Euskal Herri atlantiarreko beste toki askotan gertatu bezala, nahikoa iluna baita.

Ondorio gisa, Urumeaerrekako hainbat tokitan lur-langintza artzantzaren eskutik garatu zela azpimarratu, ikusi ahal izan denez, baserri bat baino gehiago saroe baten baitan sortua baita. Abiapuntua finkatzea oso zaila bada ere, XIX. menderako prozesua amaituta zegoela esan daiteke, itxura guztien arabera, bilakaera horretan, unerik biziena XVIII. mendea izanik. ♦

1. Urumeaerrekako terminoa erabiltzen denean EPELATIK NAPARRALDERaino eta LIZARREGITIK AMUNOLARaino dihoan lurraldea esan nahi da.
2. Ikus ZALDUA, L.M.: Saroeak Urnietan. Urnieta 1996, Kulturnieta S.A.
3. Cf. CAVA, A.: "El Neolítico en el País Vasco". Munibe, 42 (1990) 97-106.
4. Aipamenean, zein Amunola eta Anziz-i buruz ari ziren ez da zehazten. Ildo horretan, AMUNOLAN eta ANTIXISTAN bina saroe egon direla gogoratu behar da eta, bereziki, AMUNOLA GARAIOA zein ANTIXISTA GARAIOA saroeen zati bana Urnietan zeudela.
5. "Historia y toponimia donostiarra". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, (Homenaje a Urquijo) 1951, III, 353 or.
6. Hernaniko Udal Artxiboa. Copia autorizada de las escrituras de concordia concertadas en 1379 y en 1461 entre los Concejos, justicias y hombres buenos de San Sebastián y Hernani ... (...) ... Demarcación practicada, en cumplimiento de las cláusulas concertadas, de los términos de Landerbasoa y Epelsaeza y de los cinco ejidos apartados (1379-1461). Sig.: C sek., 5 neg., I ser., I lib., 1 esp., 38 r^o.
7. Cf. AYERBE, R.M.: "Ordenanzas Municipales de Hernani (1542). Estudio y transcripción". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, XXXVIII (1982) 275 or.
8. Hernaniko Udal Artxiboa. Sig.: E sek., 4 neg., II ser., 2 lib., 4 esp.
9. Valladolidgo Erret Txantxileriako Artxiboa, (Artxibo de la Real Chancillería de Valladolid). La División y Partición y separación de cinco ejidos y veinte y dos seles sitios en el valle de la Urumea. Sig.: Pleitos civiles, Varela, Fenecidos. 3842 kutxa, 1 zenb. eta 3847 kutxa, 1 zenb. Legajo 758.
10. Areso eta Leitza konparazio baterako. Ikus PERURENA, P.: "Bordariak ez dira hain aspaldikoak". El Diario Vasco egunkaria, 1996-IV-12.
11. Hernaniko Udal Artxiboa. Documentación correspondiente a la Contribución de Culto y Clero (1812-1859). Contribución pecuaria. Sig.: C sek., 7 neg., III ser., 1 lib. Zerrendan laurogei buruko hiru artalde eta ehun ardiko artalde bakar bat azaltzen dira.
12. Uztarri edo idi-pareak.
13. Beste toki batean Cabezas sueltas de ganado ipintzen du. Seguruenera behietaz ari da.
14. Bertako lau etxebizitzetara dagozkien datuak.
15. Hernaniko Udal Artxiboa. Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa, impreso sin indicación de fecha, aunque se deduce que fue posterior a 1863 (según Soraluce se imprimió en 1865). Sig.: B sek., 4 neg., I ser., 2 lib., 1 esp.